AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1251

141/2013 EBAZPENA, otsailaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Elisa Gómez Inhiesto andrea Galdakao-Usansolo Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren postutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 15eko 49/2001 Ebazpenaren bidez, Elisa Gómez Inhiesto andrea Galdakao-Usansolo Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatua izan zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, zuzendaritza nagusi honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Elisa Gómez Inhiesto andrea Galdakao-Usansolo Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren postutik kentzea, eta egindako lanarengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko otsailaren 10etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Galdakao-Usansolo Ospitaleari, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.